

A20 HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK LASARTE ORIAN

	2011-XI-20	2008-III-9
Hautesleak	14.148	14.391
Baliogabeak	79	70
Zuriak	201	202
Abstentzioa	%30,21	%35,47
PSE-EE	3.309	4.947
PP	1.643	1.444
EAJ-PNV	1.424	1.264
Amaiur	2.446	
EA		401
Aralar		71
IU-EzkerAnitza	399	
IU-EB		292
UPyD	208	65
Besteak	257	231



Datorren ostiraleko Txintxarrian Senatu eta Kongresurako hauteskunde emaitza denak eskainiko ditugu zehatz mehatz eta AUZOZ AUZO

PSE garaile, jaitsierarekin

Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan beste leku askotan bezala Lasarte-Orian ere PSE-EEren jaitsiera eta Amaiur sarrera indartsua azpimarratu daitezke. PP eta EAJk igoera txikiak izan dituzte.


Lasarte-Orian PSE-EEK jaso zituen atzo igandean Madrileko Kongresua berritze-ko hauteskundeetan botu gehien, baina 2008an baino 1.638 botu gutxiago eskuraturaz. Orduan ez zen ezker abertzalea aurkeztu eta atzo Amaiurrek estreinu indartsua izan zuen, 2.446 botu eskuratu baitzituen. Hego Euskal Herriatik Amaiurrek Kongresuan zazpi ordezkari izango ditu, bost PSOEK, PNVk eta PP-UPNk.

Sentimendu dantza

Dantza garaikidea egiten duen Nats Nus talde kataluniarra ikusteko aukera izan zen ostiral arratsean Manuel Lekuona kultur-etxean. "En attendant l'inattendu" emanaldiak denetariko sentsazioak biziarazteko aukera eman zien bertaratu. Claire Ducreux eta Toni Mira dantzari bikoteak bi pertsona oso desberdinen arteko amodio istorioa kontatu zuen. Bateriaezinak zirela ziruditen, poesia zen bata, airea, librea. Matematika bestea, zurruna, gogorra. Baina haienertzek elkar ukitu zutenean, borobil perfektua osatzen zutela konturatu ziren.



Saio bikaina eskaini zuen Nats Nus osatzen duen bikoteak, jendeak txalo zaparra batekin agurtu zituen.



20. urteurrena ari da ospatzen Jalgune elkarteak

Hurrengo larunbatean egingo den jaialdia eta abenduaren 3ko bazkariarekin emango diote amaiera Jalgune elkarte-koek "20 urte 11 bertute" ekimenari. /4-5 orrialdeak

Bideo Lagunak



BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Inguruko erakusketarik onena.

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin



Aitor Atxega Musikari eta bidaiaria

Mexiko Aitor Atxegaren begiradatik

Asteazkeneko emanaldian "herri alaia, irekia eta esker onekoa" erakutsiko du Jalgin

Aitor Atxegak nahiko ondo ezagutzen du Mexiko, senitartekoak ditu, hiru aldiz egon da bertan eta lasarteorriatarrei azaltzen saiatuko da asteazkenean 21:30tik aurrera Jalgi tabernan. Aurten, bikotearekin eta honen gurasoekin joan da, "80 urteko pertsonekin eta noski, ez dut sekula "bidaia" baten aurretik hainbeste ordu erabili prestatzen", ezin zen eta, "nonahi ibili, zoruan lo egin, zernahi hura egin...". Non lo egin, nora jo, ... aurrez lotuta izan dute, baina badu zer erakutsirik.

Jon ALTUNA IZA

Mexikon ahaideak izateak bertan mugitze-ko "erraztasunak" eta "sarbidea" ireki dizkie, baina bestela ere, "herri erakargarria" da Aitor Atxegarentzat. "Euskararen antzera, oso osasuntsua ez den herri bat", baina aldarte onari eusten diona, "alaia, irekia, esker onekoa... Interesgarriak zaizkidan Hego Amerika eta AEB bertatik-bertara dituzte... Eta handia denez beti du zerikusiren berri bat".

Zer erakutsiko diguzu Jalgin?

Mexikoko historia pixka bat azalduko dut harrigarria baitzait Espainiari eta AEBei dieten miresmena lapuru dieten guztiarekin. Mexikon etengabe usaintzen dira indigenen eta Espainiaren arteko kontuak eta pixka bat kokatzea polita izango da.

Ondoren Mexiko hiriaren handitasuna, kontrasteak, bizitasuna, toki bereziak, ... pixka bat azaltzen saiatuko naiz; baita iparraldeko independentziaren eskenatokiak, espainiarrak erakarri zituen meategi lekuak, hiri kolonialak azken batean: Guanajuato, Zacatecas, Hidalgo, San Millan de Allende...

Honekin batera Ozeano Bare edo Pazifikoko inguruko eta Acapulcoko pare bat ikuspegi, turismo bortitza eta nar-kotrafikoa nola dagoen txertatuta; eta bukatzeko Chiapasen ere ibili ginen eta bertako lau zertzelada: oihaneko zenbait irudi, gaur egungo hango gizarteari buruz ekarri ditugun bi ideia, tximinoak, Palenque, Guatemalako muga eta mugako arazoak, Sumideroko Kanoia... kolore berdea eruz!!

Zer moduzko herrialdea da? Zein inguru ezagutzen dituzu, eta zeintzuk dira gomendagarriak?

Mexiko niretzat batez ere lasaitasuna da. Erritmo geldo-

koa, baina geratzen ez dena. Herri kantaria, alaia, dantzazalea, umila... Lehen aldiz joan nintzenean Tijuana moduko lekuek erakartzen ninduten, uste dut 21-22 urterekin, AEBtan urte bat pasa eta hilabeterako hara "jaitsi" nintzenean: AEB bertan zeuden, mugek dakarten desmasia, kale giroa... Mexicali, eta gaur egun egoera oso latzean den parajea: Ciudad Juarez eta El Paso inguruetan ibili nintzela. Orduan ez zen noski gaur egungo konturik.

Bigarren bueltan "lasaiago" ibili nintzen Cancun, Huatulco eta Oaxaca inguruetan: eguzkia, golf-a (golfeoa ere noski je je je je)... eta DFn zientu bat museo ikusi nituen.

Gomendatzea zaila da eta erraza aldi berean. Joan aurretik zein aldarte daramazun ondo begiratu. Kultura nahi izatera, DF eta bereziki antropologia museoa (ez dakit zenbat ordu pasa dudan hango pasiloetan aurrera eta atzera). Hispaniarrak iritsi aurreko garaia ezagutzeko sekulako aukera dago Mexiko osoan barrena, eta oso ondo adierazia.

Corputza dantzan erraz jartzen bazaizu, turismo leku oso espezializatuak daude: Cancun, Acapulco, Huatulco... gure Mediterraneoaren antzekoak ulertzeko.

Berdetik ibili nahi duenak ere badu nahikoa aukera. Guerreros estatutik hasi eta Chiapas Hego-Ekialdea arte, dena, mendia eta oihera da. Horregatik ezkatatu zen hain egoki Marcos Jauna. Krokodiloak ikusi ditugu, tximinoak... Hori bai beroa eta batez ere hezetasuna azalean sofitzeko prest joan.

Historia luzea du, ezta? Indigenak, hizkuntzak,...

Ez nuke esango bereziki historia handirik duenik baina bai jakituria. 1521 urtean espainiarrek konkistatu aurretik "mesoamerika" zen hartan, jakituria deskubritzera ematen



Hiru aldiz egon da Aitor Atxega Mexikon. Aurten, besteak beste Chiapas-en eta bertako gizartearen egungo egoera azaltzen saiatuko da.



Oso handia da Mexiko, denetarik du eta batetik paraje berdeak erakutsiko ditu.



Bestetik, Mexiko Hiria oso handia, bizia, kontaste handikoa, ... da. 40 milioi bizi dira.

zuten eguna. Sekulako matematikariak, astronomoak, eraikitzaileak etab. ziren. Beraien artean gerra edota lis-karrak izan zituzten, baina ez

ziren kanpora atera konkistara. Horregatik behar bada, historia kontatzen den liburuetan leku gutxi izango du Mexikok.

Zer moduzkoa da hiriburua?

Hiriburua ikaragarria dela saiatuko naiz azaltzen asteazkenean. Zerbakiak beldurra ematen dute, edo askotan ulertezin bihurtzen dira, niretzat behintzat: ia 6 milioi kotxe... 24 milioi pertsonako jarioa egunero, lanera joateko 4 edo 5 ordu autobusez ala trenez, metropolian 40 milioi... urtean 2 milioi aterratzen dira DFtik, eta beste hainbeste joan, Estatu Espainiar osoko datuak ekarri eta ziur asko ez da oso aparte ibiliko. Baina Mexiko DFkoa 50 kilometro karratutan... izugarria da!! Eta gaur egun, orain 10 urte ez bezala oso leku segurua da. Mexikoko leku seguruen, Mexiko hiria omen da gaur egun. Joan eta bisitatu benetan.

Apur bat "mariatxia" bazara zu, ezta?

Hala diote bai. Egon, behatu, topa, kantatu, liluratu, loratu, koplatu... Ez al da polita ba? Inoiz ez dakizu noiz etorriko den inoiz kantatuko duzun abesti onena kantatzeko edo bizitzeko abagune egokiarena; zain egon behar da, usainean ehiza-txakurra bezala.

Halere, urteak ez dira alferrik joaten eta garroteak ez daramatza erreboluzio berdinak. Hori bai, oraingo bueltan ere gitarra eta pianoa behin baino gehiagotan dantzatu ditut. Charro batek esan zidan moduan, DNAk agintzen du lehen, gero bihotzak eta burua ere hor dugu noski! Ikusi arte. •

Lanbideren zerbitzu berriak eskainiko dira kultur etxean

Lan aholkularitza astelehen eta asteazken goizetan zabalik

Astelehen eta asteazken goizetan langabetuentzat edota lana aldatu nahi duten langileentzat aholkularitza zerbitzua eta Lanbideren prestazioak jasotzeko laguntza eskainiko da Kultur Etxean.

Herriarrek dagoeneko Lanbideren zerbitzu berriak dituzte eskuragarri Manuel Lekuona kultur etxean, astelehen eta asteazkenean 9:00etatik 14:00etara. Bertan prestazioak tramitatzeko aparteko zerbitzu guztiak egin daitezke, hau da, arreta eta orientazioan oinarritutakoak zehazki esanda; curriculuma egin eta egunean jarri, Lanbiden izena eman, auto-enplegu orientazioa jaso, ... Tailerrak ere herriarren beharren arabera antolatuko direla dio Saioa Laruskain orientatzaileak.

Tailer horien artean dira, besteak beste, langabeei Internet bidez lana topatzeko ikastaroak, bideocurriculuma egitekoak, lana bilatzeko tekniken tailerra edo enpleabilitatearena.

Norberak lana topatzeko jarraitu beharreko bidea gidatzeko helburua dute guztiak eta batez ere, gaur egungo lanaren kontzeptua aldatu delako, oso beharrezkoa da langabetuek jarrera proaktiboa izatea, hau da, lana norberak bilatu behar duela eta betirako lana topatzearen zailtasunaz jabetzea "oraindik jende askoren buruan garai bateko kon-



Gorka Lizarraga zinegotzia udaleko teknikari eta bi orientatzaileekin.

trato motak daude, erretiroa hartu arteko lanpostuak baina egungo egoera bestelakoa dela ikusi behar da".

Azpimarragarria da esperientzia baloratzeko orain martxan jarri den programa berria. Honakoa lan zehatz batean urteak emandako jendeari zuzenduta dago eta honen arabera, konpetentzien neurketa bat egiten zaio pertsonari eta hau gaingiduta, lan hori egiten dakiela aitortzen duen titulua eskuratu ahal izango luke. "Oso interesgarria izan daiteke pertsona askorentzat eta horregatik programa honen nondik norakoak azaltzeko informazio guztia daukagu hemen".

Langabetuentzat tresnak

Herrian dauden beharrak ikusita, Lanbidek beste zerbitzu hau martxan jartzea erabaki du langabetuei baliabide gehiago eskaintzeko asmoz. Gorka Lizarraga zinegotziaren

hitzetan kultur etxean eskaintzen dena tresna bat gehiago da, "Lanbideko bulegoetan mota honetako tailerrak ez dira antolatzen beraz, beste baliabide hau herriarren eskura jartzea positiboki baloratzen dugu udaletik".

Lasarte-Oriako gizarte zerbitzuetaik, eskualdeko baliabideak erabiltzera bultzatu nahi ditu herriarrek, beste ikuspegi batetik hasi nahi dute lanean "eskualdeko garapen estruktura bat sortu nahi dugu" baliabideak lortu eta "eskualdeko proiektuak martxan jarri nahi dira, formakuntza eta lana bultzatzeko neurriak hartu nahi ditugu eta hauek nola burutu hausnartzen ari gara herriko gizarte zerbitzueta" izan ere, langabetu kopurua altua da Lasarte-Orian eta egoera honi nolabaiterako irtenbidea bilatu nahi dio Udalak eskura izan ditzakeen bitarteko guztiekin lan eginez. •



Basaunditik Leitzara joan etorria bizikletan- Herriko 20 txirrindularik parte hartu zuten larunbatean Basaundi Leitzara joan etorrian. Basaunditik goizeko 8:30etan atera, Leitzara hamaiketako dotorea egin eta 13:00etarako Lasarte-Orian ziren, ondoren Buruntz-Azpi elkartearen babarrun gogo goxoak jateko. 12. urtez antolatu dute irteera hau. Irudian taldea Leitzan. •

LANDABERRI

Guraso eskola martxan

Landaberri ikastolako Guraso Elkarteak "Guraso Eskola" martxan jarriko du aurki.

Seme alabei ikasketetan laguntzeko edo gai desberdinei, hala nola, sexua, teknologia berriak, bulling-a... nola aurre egin ikasteko mintegi ludiko eta praktikoa antolatu du Guraso elkarteak.

Hilabetearen behin, astearte batean elkartuko dira Mapi Urresti psikologoarekin gai zehatz bat jorratzeko. Ordu eta erdiko saioak izango dira, 15:15etik 16:45era. Lehen egunean jorratuko diren gaien proposamen bat emango da eta taldeak ikusten dituen aldaketak egin ahaliko ditu.

Guraso eskolari buruzko informazio gehiago nahi duenak, landaberrigurasoelkatea@hotmail.com helbide elektronikoaren bidez egin dezake eskaera. •

IGERIKETA TXAPELKETA

Igerilekua itxia egongo da larunbat arratsaldean

Igeriketa txapelketa dela eta, Udal igerilekua datorren larunbatean azaroaren 26an, arratsaldeko 16:00tik 19:30etara itxia egongo da erabiltzaileentzat.

Udal kirol instalazioko abonatuak Andoaingo, 943 300 147, eta Usurbilgo, 943 373 498, igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute. •

SANTA ZEZILIA

Musikarien zaindariaren eguna ospatzeko hainbat ekitaldi Lasarte-Orian

Nahiz eta arazoaren 22an, asteartean izan eguna, atzo hasi ziren Santa Zezilia, musikarien zaindariaren ospakizunak gure herrian.

Alboka abesbatza izan zen bere sainda ohoratzen lehena. Arantzazuko Amabirjinaren parrokian 12:30etako meza girotu zuen herriko abesbatzak. Ostein, bazkaria izan zuten, bazkide eta lagunekin.

Gaur berriz, Musika eskolako txanda da. Txorimaloak Soinu taldearen kontzertua antolatu dute, gaur arratsaldeko 19:00etan Manuel Lekuonako areto nagusian.

Akordeioa trikitixarekin uztartuz eta bateria eta baxua oinarri hartuz, Euskal Herriko zein atzerriko hainbat musika tresna konbinatzen ditu.

Musikajoleen ahotsa ere entzun daiteke taldearen emanaldietan, zenbaitetan euskal kantu ezagunak interpretatuz eta bestetan berriz taldekideek sortutako hitzak kantuan jarri. Izan ere, Txorimaloak soinu taldearen egungo helburuetako bat, taldeko partaideen sorkuntza lanak jende aurrera eramatea da.

Estatuko, zein nazioarteko folklore jaialdietan egon dira, hala nola, 2010 urtean EEBBetako Boisen egiten zen euskal jaialdian.

Bestalde, bihar, Amalur eskolako txistulariek arratsaldeko 19:00etatik aurrera herriko hainbat kaleetatik barrena ibiliko dira kalejira alaian. •

ZENTRO ZIBIKOA

Genero indarkeria gaitzesteko ekimenak astean zehar

Azaroaren 25an, genero indarkeriaren eguna da. Urtero legez, Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoak aste honetan hainbat ekintza ezberdin antolatu ditu bere egoitzan herria eta herriarrek emakumeen arazoaren inguruan sentsibilizatzeko asmoz.

Bihar, azaroaren 22an, 17:30ean Iciar Bollain zuzendariaren "Amores que matan" film laburra ikusi ahaliko da eta ostein, indarkeriaren zikloa eta babesteko estrategiei buruzko hitzaldia eskainiko du Mercedes Humada psikologoak.

Asteazkenean, azaroaren 23an, berriz, zine foruma egingo da. 17:30etatik aurrera, Pedro Almodovarren "La mala educación" filma ikusiko dute Aingeru Mayor sexologoaren laguntzaz.

Ostiralean, genero indarkeriaren egunean, 19:30ean, Emakumeen Zentro Zibikoko antzerki taldeak "Patio de vecinas" lana eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.

Eta ekitaldiei amaiera emateko, 21:30ak aldera, afaria egongo da Araeta jatetxean. Zentro Zibikotik gogorazten dute, afaria herriko emakume guztiak daude gonbidatuak. Afariaren prezioa 24 eurotako da eta izena eman nahi dutenek Emakumeen Zentro Zibikora hurbildu behar dira, asteazkenean, azaroaren 23a baino lehen, eguna hau barne. •



Musikari profesionalen antzera elkarrean kanta grabatzen aritu dira '20 minutu' taldeko kideak.



Pirrox, Porrotx eta Mari Mossen biokiporen grabaketan parte hartu dute Jalguneko kideak aurrin.



Buruhandak presenten egon dira herriko beste Karrezoako festatan, besteak beste, Semblante Andaluz elkarreko antolatzaileekin.



Lip Dub-a ekintza arrakastatsua izan da, 150 lagun mozorro eta guzti elkartuta.



Herri krosoan parte hartu dute 'klubeko' ilar den kroledorito jantzia bazuk.

Jalgune, pausoka-pausoka, ametsak betetzen

■ Jalgune elkarteko kideak 20. urteurrena ospatzeko antolatu duten "20 urte 11 bertute" gitarrako ekintzak bukatzeaz
 ■ Jaialdi handia egingo dute larunbat honetan azaroaren 26an kultur etxean eta laguntzaileekin bazkaria abenduaren 3an

Jalgunekoek urteurrena ospatzen ari dira. "20 urte 11 bertute" leloarekin, herriko beste elkarteekin sortu den elkarlanerako haren mantentzea izango da aurreiritzearen erroka. "Zenbait ekintzatarako laguntza eskatu diegu herriko elkartei eta guztiak prest azaldu dira. Adibidez, Ostadarrekin jantzi ginen kontaktuan herri krosoan nolabait parte hartzea gustatuko litzaigukeela adierazteko eta hain justu, guri parte hartze hori proposatzeko ideia zutelako aipatu ziguten".

Maidar AZURMENDI

Bide honetan asko izan dira egindako lagunak eta urteurrenaren aitazuenekin, herriko beste elkarteekin sortu den elkarlanerako haren mantentzea izango da aurreiritzearen erroka. "Zenbait ekintzatarako laguntza eskatu diegu herriko elkartei eta guztiak prest azaldu dira. Adibidez, Ostadarrekin jantzi ginen kontaktuan herri krosoan nolabait parte hartzea gustatuko litzaigukeela adierazteko eta hain justu, guri parte hartze hori proposatzeko ideia zutelako aipatu ziguten".

Espereintzia bertak
 Aurretik urteurrenako antolatutako jardueraren bidez, beste alfo batzuetarako jendea ezagutu dute ekintza hauekin eta beraien ere ezagutu dituzte. "Integratzaile espazio bertak ireki ditugula irudizten zaigu".
 "Bereziki esanguratsua izan da adibidez Dardo txapelketa-ekin gertatutako" Pili Bermejo begiralearen ustetan.

Dagoeneko seigarren aldiz antolatu dute txapelketa. Bertan 15 bikote lehiatzen dira eta hauen osteko, Jalguneko kideak herriko lagun banakin elkarrekin dituzte begiralearak.
 Txapelketa prestatzearen aitazuenekin, Jalguneko kide batzuk euren artean geratzen dira tabernan dardotan jokatzeko. Han txapelketa honetan parte hartzen duten gazteekin egiten dute topo normalan eta elkarteekin ibiltzen dira jolasen. "Integratzaile bidean polki-polki gazte baina pauso garrantzitsu eta sendoa ematen. Hau da honen adibide".

Lotsagabeak
 Pertsonalki ibilbide honetan gazteen aurrean bereziki esanguratsua izan dira. Hasiaren lotasi azaltzen ziren jende aurreko ekintzetan baina dagoeneko lotsa guztia galdu eta eszenatokian etxean bezain eroso sentitzen dira. Gainera ekintzak eurrak egin, aurrera ateratakoak direla azpimarratu nahi dute begiralearak "momentu jakin batzuetan laguntza emateko gaude baina beraien dute guzti hauen

ten beraien festa eta Lip Dub-ean parte hartzeko eta hor egon ziren Jalgunekoak. Azkenean, hogeitaz ekintza baino askor gehiago egin dituzte aurtengoan, agenda beteta izan dute hilabeteotan eta urtea oraindik ez da amaitu.
 Gurasoen inplikazioa urte hauetako ibilbidean guztiz garrantzitsua izan da. Euren indarrak batu zituzten seme-alabek aisialdirako taldea izan zezaten, euren ametsa zen eta hau dela eta ekintzetan ez dira gurasoak aparte uzten. "Hala ere, beraien parte hartzea oso garrantzitsua izan arren, kasu batzuetan badira ekintzak begiralearak bakarrik gazteekin egiten ditugunak. Autonomiak izan behar direlako eta gurasoen laguntza gabe gazteak ondo egiteko guztiz kapazak direla ikusi behar dutelako".

Jaialdia larunbatean
 Gaurtik aurrera hamaika bertute bezala, hamaika tabernatan jantziako argazki erakusketa dago kusgai aste betez; Jalgil, Trumoi, Dakara, Buenetxea, Hirualdeta, Aben, Itaki, Corbates, Alos, Intxauri eta Kultur etxean izango dira Jalgunekoen argazkiak.
 Azaroaren 26an, euskaltegiko ikasleekin elkar ekintza bat egingo dute eta 26an jaialdi handia izango da kultur etxean 18:30an.
 Honek beste urteko plan-teamendua izango du baina aurtengo leloan oinarrituta eta iaizko parte hartzea izatea espero dute antolatzaileek. Talde bezala Semblante Andaluz eta Taupada batukada egingo dira bertan eta 'indibidu-

dualki' ehun partaide inguru. Herriarrok bertara gerturatzeko animatzen dituzte Jalgunekoak "sarrera irekia da eta ondo pasatuko dutea ziurtatu daiteke".
 Goniadepanek www.lasarteoriarairean.eu-n eskura daitezke.
Bazkaria laguntzaileekin
 Gainera ospakizunak ez dira jaialdiarekin amaituko, abenduaren 3an bazkaria egingo dute Goiegi jatearekin Jalgunekoak, gazteak, begiralearak, familiarak eta urte guztian beti laguntzeko prest egon diren lagunak. Bazkariaren ostean, dantzaletan egingo dute Villa Mirrentsun 17:00etatik 20:00etara eta hemen DJ bat egingo da festa giroaren. Honetan ere nahi denak hartu ahal izango du parte "herriarrok parte hartzea animatzen ditugun, hurrengo urteko ibilbidea gurekin osatu dezaten".
 Anbulategi herriko bigarren solairuan bilzen dira Jalgunekoak eta beraien ezagutu edota egiten dituzten jardueratan parte hartzea prest daudelarik "beti ongi etoririk izango dira". Facebook sare sozialean aurki daitezke ere Jalgune Elkartearen ikurak, bide horretatik euren kontaktuan jantzi daitezke informazio gehiago eskatu edo egiten duten guztia hobeto ezagutzeko. ■



Buruhandi lanetan jalguneko hiru kide doctore jantzia.



Sendiviro partera egindako inzeran gaitzak begiralearen bazara.

Iñaki Racamonde/ Pilotua

“Aurreko urteetan ez bezala gozatu dut”

Hirugarren urtez jarraian, Racamonde Euskal Herriko mendi igoeretako txapelduna da

Udana, Aia, Gorla, Urkiola, Leintz Gatzaga eta Urraki izan dira 2011 urteko Euskal Herriko mendi igoeretako txapelketan egin diren sei probak. Iñaki Racamonde lasarteoriatarrek guztietan parte hartu du 1 klasean eta emaitza paregabeak lortu ditu. Ondorioz, Euskal Herriko txapela eskuratu du hirugarren aldiz eta berarekin egon gara denboraldia nolako izan den jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Apirilean hasi zuen denboraldia Iñaki Racamonde herritarrek, Udanako igoerarekin eta sei probaren ostean, Euskal Herriko Mendi Igoeren Txapelketako irabazle izan da bere Citroen AXarekin, “lautan lehenengo izan naiz, beste bietan bigarren eta hirugarren”. Hirugarren urtea da garaikurra etxera ekarriko duena.

Talde lana

Aurtengo denboraldia, primeran joan dela adierazi digu, “autoa ongi ibili da eta ni ere gustura egon naiz. Talde osoak lan ona egin du”.

Gainera, “aurreko urteetan ez bezala, asko gozatu dut kotxearekin. Aurten proba egin eta oso pozik ateratzen nintzen, nahiz eta hirugarren izan”.

1 klasea

Bere mailan 1 klasean “probaren arabera, sei eta zortzi kotxe artean genbiltzan” jakinarazi digu.

“Ez da borroka handirik egon. Hala baina, azken proban Urrakin segundohamarraren batzuetatik irabazi genuen. Azken txandan erabaki zen”, onartu du.

Azken probarako gainera bazekien bere mailako irabazlea zela, “azkena da, badakizu irabazia duzula, baina berdin saiatzen zara”.

Izan ere, Iñakiren ustez, “Urrakin gozaten duzu,

proba luzeena eta politena da. Bihurgune asko ditu eta eremu azkarrak”.

Krisia

Bestalde, aurten urte arraroa izan dela adierazi digu herriko gidariak. “Antiguako proba bertan behera geratu zen, Zumarragako udalak ezin ziolako gastuari aurre egin. Eta Urraki ia ez da egiten, esate baterako. Krisia nabari da” aipatu du.

“Mundu honetan babesleak izatea komeni da, baina egungo egoerarekin ez da erraza. Diru sarrera gutxi dago, sarrerekin lortzen dena. Eta gastu asko dago, aseguru, antolakuntza, etb. Hurrengo urterako ikusiko da”, jakin arazi du herriko pilotuak.

“Aurten probatan hainbat istripu izan dira eta horrek antolatzaileek gauzak gehiago pentsatzea dakar. Haiek ez dituzte arazoak nahi, aseguru oso garestia da, antolakuntza...” gaineratu du.

Eguraldia eta istripuak

Racamondek adierazi digunez, “urte hasieran Udanan oso egun txarra izan zen gutzientzat. Istripuak egon ziren eta harrapatze batzuk. Zain egon behar izan ginen ordu eta piko”.

Eguraldi aldetik ere oso ezegonkorra izan zela aipatu du, “batzuetan euria, bestee-tan ateri eta gainera beroa egiten zuen. Gurpilak aldatu egiten bi txandak egiteko



Iñaki Racamonde lasarteoriatarra hirugarren aldiz izan da 1 klasean Euskal Herriko mendi igoeretako txapeldun.

eta bietan ez genuen egokia jarri. Bigarrenean gainera euria egiten hasi zen eta guztiok lehorrekoak genituen jarriak. Ezin genuen autoa ongi menderatu, nik bezala arraroa izan zen, guztia alderantziz egiten ari ginen eta”.

Honetaz gain, Urrakin istripu asko egon zirela azpimarratu du, “ez ziren kalte pertsonalak egon, baina autoek kolpe ederra zuten. Arazo mekanikoak ere egon ziren asko. Lehorreko lasterketa izan zen eta ez dakit, parte hartzeko gogoengatik izan zen edo”.

“Gu lehenengoak gara gogozten eta ez duzu arazorik izaten. Potentzia gehiago duten kotxeak dira istripuak izaten dituztenak eta gu goian gaudela jakiten dugu nor izan duen. Gero jaisterakoan ikusten dituzu eta batzuetan, harrigarria da benetan gidariak autoetatik kanpo ikustea,” atxiki du.

2012ko txapelketa

Gauzak honela, hurrengo denboraldiko igoeren egutegiari dagokionez, “urtarilerarte ez dugu ezer jakingo. Baina aurten Antiguako proba bertan behera geratu zen, Leintz Gatzagakoa ere ez dutela egiteko komentatu zuten, Urkiola ez dute egingo ziurrenik,... beraz lau geratzen zaizkigu. Federazioak Urbasako igoera Euskal Herriko txapelketarako puntuagarri egin nahi zuen, baina ez dakigu ezer ziurrik”.

Murrizketak direla ere, 2012 urtean jarraitzeko asmoa duela aurreratu digu, “baina hemen gero eta igoera gutxiago geratzen dira eta kanpora joateko asmoa dut. Errioxa edo Santanderren egiten diren igoerak egingo ditut agian. Aurten ezin izan dut, baina Urbasakoa egin nahi nuen”.

Autoari aldaketarik egingo ez diola ere esan digu, “autoaren esekidura aldatu diogu aurten eta hurrengo urterako

dagoen bezala mantendu beharko dugu. Gurpil-azal batzuk lortu beharko dira, baina bestela horrela mantenduko dugu”.

Eta gauzak zail izango dituela ere aurreratu du, “Lasarte-Oriako beste pilotu bat dago Jesus Txus Iglesias, eta ni irabazteko gogo asko ditu. Ni baino hamar urte gutxiago ditu eta auto berdina, Citroen AX. Hori da borroka gehien ematen didana, Bizkaia aldeko beste gidari bat dago ere. Baina atzean utzi dugu. Hurrengo urterako ikusi beharko da zer gertatzen den”.

Eskerrak eman

Azkenik, Iñakik eskerrak eman nahi dizkie txapelketa hau lortzen lagundu dieten babesle, Maite ileapaindegia, Landare karrozeria, Jalai taberna, Lasarte taberna, El Corbatas taberna, Talur Zervice eta manager, argazkilari, mekaniko eta familiari. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizki-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

SOFIA AROSTEGIREN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroan zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN.



Astelehena, 21

Kontzertua

SANTA ZEZILIA ospatzeko Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolak Irungo TXORIMALOAK SOINU TALDEAREN kontzertua antolatuta du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **19:00etan**

Asteartea, 22

Kalejira

SANTA ZEZILIA ospatzeko AMALUR ESKOLAKO TXISTULARIEN kalejira. HERRIKO KALEETATIK, **19:00etatik aurrera.**



Brouard-en bizitzari erreparoa

SANTI BROUARD. DUINTASUNA OMEN dokumentala ikusgai, hileroko ARGIA EGUNEAN. Santi Brouard, Bilboko bere pediatria kontsultan, GALEK tiroz hil zueneko XXV. urterrean egindako dokumentala. HASI eta HBren sortzailearen bizitza eta ekinbide politikoari begirada sakona egiten zaio Arnaldo Otegi, Xabier Arzallus, Txomin Ziluaga edota Jean Louis Davant bezalako pertsonen hitzen bitartez.

OSTEGUNA 24 21:30EAN
JALGI KAFE ANTZOKIAN

Asteazkena, 23

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin kontalaria 5, 6 eta 7 URTEKO gaztetxoek zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan, EUSKARAZ**

Ikastaroa

NOBLE Y FIEL AMIGO ELKARTEAK txakur jabeentzako hezkuntza proiektuan JARRERA ALDAKETAKO SAIOA PRAKTIKOA egingo du. ATSOBAKARREKO PARKEAN, **19:00etan. Izena ematea, 8 euro.**

Diaporama

Aitor Atxegak MEXIKORA egin zuen bidaia azalduko du, Ttakinke antolatutako diaporama zikloan. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean, EUSKARAZ**

Osteguna, 24

Elizkizuna

MARIA AUXILIADORAREN hilero-ko meza ARANTZAZUKO AMAREN KAPERAN. **17:00etan**

Oharrak

Baztango bailarara irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak azaroaren 25ean Baztango bailarara antolatuta duen irteerako bigarren autobusa jarri du. Irteeraren prezioa 34 eurotako da. Izena ematea Biyak bateko egoitzako bulegoan egingo da, 10:30etatik 12:30era eta plazak amaitu arte egingo da irekia.

Erketz Dantza taldea

Erketz Dantza Lagunak taldeak jakinarazten du dantzatzen ikasteko saioak hasi dituztela.

Taldea ez da erabat osatu, leku dago eta interesatuek entsegu egunean, asteartean bertan Zumaburuko ikastolako gimnasioan 20:00etatik 21:30era azaldu eta izena eman beharko dute.

Padel ikastaroak

LOKEKO padel atala hilabete honen amaieran lanean hasiko da eta haur, zein helduentzako ikastaroak eskainiko ditu asteen zehar.

Banakako, zein taldeko saioak egingo dituzte ikasleen mailaren arabera. Haurren kasuan 7 urtetatik aurrerakoek izena eman ahaliko dute.

Padelean lehengo pausak eman edo teknika garatu nahi duen herritar orok, orain dauka aukera. Egin beharreko gauza bakarra Eli Lorenzorekin harremanetan jartzea da, 687 632 737 zenbakian.

Udako Txokoetako argazkiak

Udako Txokoetako argazkiak dituzten CDak prest daude dagoeneko. Txokoetan ibili ziren haur guztiek horietako CD bat eskuratzeko aukera dute. Jasotzeko Ola kalea 1ean dagoen Amaraun Ludotekatik pasa behar da 17:00etatik 20:00etara azaroaren 25a arte.

Alboka Txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egiten da, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara.

EHNarekin bozkatu

Bai Euskal Herriari taldeak deialdia luzatu zuen asteen, hauteskundeetan, edozein direla ere, Euskal Herriko Naziotasun Agiriarekin (EHNA) bozkatzeko.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Egunero da azaroak 25

Kaixo lagun: Jakingo duzunez, azaroak 25-a indarkeria matxistaren aurkako eguna da. Saltzen diguten berdintasun errealtate faltsu honen azpian, bada oso bestelako egoera bat. Ondorengo datuak horren adibide bat besterik ez dira:

Besteak beste, aipagarria da 2011n Estatu Espainiarrean oraingoz 53 direla eraildako emakumeak eta horietatik 3 Hego Euskal Herrian. Bestalde, 2010. urtean Espainian egindako salaketen kopurua benetan adierazgarria da: 134.105. Datu hauek esanguratsuak badira ere, errealtate zabalago bat aurkezten zaigu; horregatik ez dugu ahaztu behar bortxakeria matxistak ere, beste espresio hauek dituela: mesprezuak, itotzerainoko exijentzia maila, lan baldintzen kaxkartzea, jarra autoritarioak, askatasun sexual mugatuak, jendaurreko errepresentazio gutxietsia, lesbofobia, norberak bere gorputzaren gainean erabakitzeko eskubideen ukapena eta ASKOZ GEHIAGO!

Horrenbestez, egoera honen aurkako jarrera edo oposizio erakusteko eta harreman parekideak bultzatuko dituen jendarte baten alde egiteko deialdia luzatzen dizuegu, Azaroak 25, OSTIRALA, ILUNTZEKO 20:30tan UDALETXE AURREAN egingo den kontzentrazioa ager zaitez.

Egunero delako azaroak 25, GORA BORROKA FEMINISTA!!

A25 ekimena

Hauteskundeak eta egoera politikoa

Ostiral goiza da, gaur hauteskunde lotsagarri batzuen kanpainaren azken eguna da.

Irabazle eta ez hain irabazleak izango dira, galtzailerik sekula ez bai da. Lotsagarria diot, azken hauteskundeetan bigarren indarra izan denari egin zaion intoxikazio, ezkutitze eta poliziaen presioa dela eta. Amaierren guda izan zela ezkutatu dute historiako liburuetatik, ordea Amaierren ez zuten herri honekin amaitzerik lortu.

Baina hauteskudez harago begiratu nahi dut. Euskal Herrian aste honetan gertatuak bultzatu nau idaztera, lehertuko nintzen bestela. Herriko presoek espetxean jarraitzen dute, ez da beraien egoera askorik aldatu. 1000 kilometro harago dauden espetxeetan dira, aurrez aurrekoak ukatuak, senideei ukituak eta okerrena, badirudiela hau konpondu dela, normaltasunean bizi garea. Presoak lehen lerrotik ezabatutako, egoeraren ikuspegi positiboa saldu nahian errealtate ezkutitze bidean gaude eta noski herri honetan jende askok sofrizten jarraitzen du. Zoritxarrez presoak kalean ikusteko denbora asko falta,

gure esku dago ordea hori lehen bai lehen gerta dadin.

Aste honetan ere lau torturazaila absolutu ditu espainiar auzitegiak, herritarrek jipoitzea doako praktika bilakatu dute berriro ere. Bitartean Euskal Herriko errepideak kolore guztietako polizia kontrolerik jarraitzen dute. Armada ere ez da geldirik.

Donostiako 15 gazte berriro ere sei urteko espetxe zigorrarekin kondenatu dituzte. Gazte militante, gazte sortzaila, gazte iraultzailea eta gazte izate bera ere kondenatu nahi izan dute. Gazteak lokartuak, 18 urteko zaharrak nahi dituzte. Baina gure gazteriak bizirik iraun behar du, guzuzion altxorra da, zahar, heldu eta gazte defenda dezagun gure gazteri bizia.

Josu Espartza estatu jakobi-noak, indarkeriaren erregimenaren esku uztea onartu dute toga beltzeko oilaskoek. Josu, ezkutaturik da, Euskal Herrian aske eta lasai bizitzeko eskubiderik gabe. Eta zergatia? Nafarroatik Euskal Herriari begirako politika egiteagatik.

Eta ildo bereko beste hainbat notizia izan ditugu aste honetan. Argi dago, bi inperiok, Libia bonbez josi duten berberak eta sionismoaren lagunek, erreskatea behar dute. Ez ekonomikoa, demokratikoa baizik. ETAREN meniarren aurrean, errepresioa mantendu eta areagotu dute. Gatazkaren amaiera ospatzeari ekin diote, poltsikoetan biolentziaren erabilaren monopolioa duten

bitartean. Gizartea lokartu nahi dute, eta arriskua hor da.

Momentu honetan, Lasarteatratziki burura. Jesus Zaballos eta koadrila. Gerra maite duzue? Gerrara ohitu zarete? Bizkartzainen abstenentzia sintetako polizia kontrolerik jarraitzen dute. Armada ere ez da geldirik. Donostiako 15 gazte berriro ere sei urteko espetxe zigorrarekin kondenatu dituzte. Gazte militante, gazte sortzaila, gazte iraultzailea eta gazte izate bera ere kondenatu nahi izan dute. Gazteak lokartuak, 18 urteko zaharrak nahi dituzte. Baina gure gazteriak bizirik iraun behar du, guzuzion altxorra da, zahar, heldu eta gazte defenda dezagun gure gazteri bizia.

Guk gure bidea egin beharra dugu, eguneroko lana, kalean, etxean, lantegi eta eskoletan. Auzoz auzo, atez ate, bihotzarekin eta buruarekin. Bakea nahi dugu, erabakitze eskubidea behar dugu. Herri honek beti jakin izan du aurrera egiten, baina lan asko dago egiteko, hau hasi besterik ez da egin, hainbat alde dugu ordea eta hori jakinda bildu gaitezen.

Honela besarkada eta animoak, zalantzarik gabe Euskal Herriaren alde lanean ibili diren eta dabilzan guztiak, espetxeetako lagun guztiak, bai eta senide eta lagunei. Geurea dek/h garaipena.

Beñat Iriondo



Okendo plaza jendez lepo. Gurasoek ez zuten seme-alaben saioa ikusteko aukera alferrik galdu.



Mari Kalanbrek ere parte-hartu zuen Lip dub-ean, nola ez ba!



Koordinazio handia behar da lip dub bat egiteko, eta oso ondo aritu ziren denak.

Biba bibrazioak!

Lip dub koloretsu eta alaia grabatu zuten igande goizean Kuadrillategi eta Gazte Klubeko gazteek Okendo plazan

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen 'Mari Kalanbre' kantua lagun, lip dub animatua egin zuten herriko gazteek. Kolorea eta umore ona izan ziren goizeko protagonistak nagusiak. Okendo plaza jendez bete zen herriko txikien emanaldia ikusteko, denetarik egon baitzen gaztetxoaren emanaldian, irria, dantza, kolorea, musika... Baita bibrazioak ere, kantuak dioen bezala.

Jon ALTUNA EGITEGI

Kuadrillategi eta Gazte-klubeko gazteek azaroaren 5ean zuten lip dub-a grabatzeko asmoa, baina bertan behera utzi behar izan zuten eguraldi txarra tarteko, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailak asteburu horretarako larrialdi laranja ezarri zuelako.

Oraingo honetan ordea, eguraldi onarekin egin ahal izan zuten hainbeste desiraturako lip dub-a. Duela bi aste euri jakas eta laino grisak ahaztuta zeuden jada, eguzkia eta kolorea ziren jaun eta jabe atzokoan.

Bizkarreko tentsioak gogoz askatu zituen batek baino gehiagok igandeko lip dub-

ean. Hiru aldiz grabatu zuten koreografia osoa, ostean planorik onenak aukeratu eta "Mari Kalanbre" kantuz lagunduta, bideo polit bat osatzeko.

Begiraleek ere primeran pasa zuten, umeek adina ia. Txikienei nola jokatu behar zuten esan eta dena ondo atera zedin saiatu ziren uneoro.

Okendo ingurutik igarotzen zirenek kuriositatez begiratzen zuten plazara, bertan gertatzen ari zenari azalpena eman nahian edo.

Antolatzaileak gustura

Antolatzaileek ekimenaren balorazioa egin zuten eta gustura geratu ziren gazteek emandako erantzunarekin. •



Begiraleek ere primeran pasa zuten goiza txikiak koordinatu eta haiei animoak ematen.



Jokin Ayerregaray aritu zen kameralari lanetan.